

B

BARREN

Lanera bizikletan

TOKIKOM



**Klinikan %15eko
deskontua
inplante
tratamenduetan**

Aldaz Hertz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean**
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe**
- “invisaling” ortodontzi ikusezina**
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)**
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak**
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte**

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377

Ola kalea, 10

Lasarte-Oria 20160

San Bartolome, 22

Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com

Goi mailako elgoibartarrak

Bizitza zelakoa den. Bi egunean goi mailako bi elgoibartar galdu ditugu. XX. mende erdialdean pertika jauzian S.D. Elgoibarren ordezkari izan ziren bi laguni buruz ari naiz, Euskal Herrian emaitza handiak lortu zituzten bi gizoni buruz.

Ezin ditugu orduko emaitzak eta denborak gaur egungoekin alderatu. Naroa Agirre daukagu orain, txapeldun handia eta Espainiako marka guztiak ondu dituena, 4,50 metroko saltoarekin. Haiek, berriz, ahaleginak egin arren eta Casto Iraegiren irakaspenak izan arren, estu eta lar ibiltzen ziren hiru metroko saltoak ontzeko. Esparatrapuz forratutako banbu kanaberazko pertikak erabiltzen zituzten, Sansonek ere nekez tolestuko lituzkeenak. Pertika jauzian, gora egitea zaila zen oso, eta erorikoa, gogorra. Ez zen izaten bigungarririk azpian, hondar apur bat besterik ez. Salto bakoitzean hondarra mugitu egiten zen, baina, eta ez zuen zartakoa leuntzen. Horrexegatik, euren indarra mugatzen zuten atletek.

Probaren bat jokatzeko zuten aldiro trenez joaten ziren Donostiara, euren banbu kanaberazko pertikak hartuta. Lau metroko pertika haiek ez ziren atetik kabitzen eta leihotik sartzen zituzten. Lehian, Gustavo Masse txapeldun donostiarrarekin egiten

zuten beti topo, baina euren mugen jakitun, duintasun eta indar handiarekin lehiatzen ziren. Noiz edo noiz irabazi ere egin zioten, gainera, Elgoibar gorengo mailan utziz.

Jose Mari Regil mendizale handia eta eskaladan Espainiako txapeldunorde izandakoaz eta Josetxo Odriozolataz ari naiz. Josetxo Odriozolari pertika hautsi zitzaion behin eta hankan sartu zitzaion. Ezbehar horrek eta erreminta bera galdu izanak eragin zuten, besteak beste, bi atleta handi eta pertsona ikaragarri haiek espezialitatea uztea.

Ignacio Mugertza



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Bi egunean goi mailako bi elgoibartar galdu ditugu.
Pertika jauzian Elgoibarren ordezkari izan ziren bi lagun”**

Etxe bat erre da San Frantzisko kalean

**Bideoa eta
erretratuak
jarri ditugu
Interneten**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA



AUTOARI STOP



Mikel Gabilondo, Iñaki Bengoetxea, Iban Maruri, Andoitz Agirregomezkorta, Jon Urbieta, Arkaitz Irureta eta Ibon Serrano.

Gazte koadrila batek *Txirringan lanera* egitasmoa jarri zuen martxan 2008. urte amaiera aldera. Izenak dioen bezala, lanera bizikletan joatea da helburua. Gutxi batzuek ekin zioten lanari, baina poliki-poliki taldea handitzen doa, eta dagoeneko dozena bat lagunek hartzen dute parte. Autoa aparkatu, eta bi erroberatan egiten dute etxetik lanerako bidea. Zailtasunak zailtasun, autoari stop esan diote.

Ainhoa Andonegi

Arkaitz Iruretak eta Ibon Serranok ekin zioten lanera bizikletan joateko egitasmoari. Idekon lan egiten dute, eta biak Elgoibarren bizi dira. Bakoitza bere kabuz hasi zen, baina egitasmoari forma eman behar ziotela pentsatu zuten. Bizikletak lagatzeko tokia eskatu zute lantokian, eta herrian bizi ziren lankide eta lagunak animatu zituzten, autoa alde batera lagatzera. Horrela, Elgoibarren lan egiten duten elgoibartar batzuk bat egin zuten egitasmoarekin. Taldean, baina, bada Bilbon lan egiten duen elgoibartar bat ere: Ibon Arregi. Trenez joaten da egunero Bilbora, baina tolesteko bizikleta bat eramaten du berarekin, eta hiriburuan bizikletaz mugitzen da bate-tik bestera. Kilometro horiek dira egitasmorako balio dutenak. Hau da, egunerokotasunean autoa edo beste edozein garraiobide ordezkatzen duten bidaia bakarrik hartzen dituzte kontuan. Aisialdian edo norbe-

rak asteburuan egiten dituzten irteerak ez dituzte kontatzen.

Osasungarria eta praktikoa

Bizikleta hartzeko gogorik izaten ez duten egunak ere izaten dira, alpertuta esnatu direlako edota gorpuzkera txarra dutelako. Hala ere, une hori gainditu eta bizikletak hartzea merezi duela adierazi dute: "Osasungarria da, eta lanera umore onez iristen zara". Autoa aparkatu beharrik ez izatea nabarmendu dute, egitasmoaren alde positiboen artean. "Aparkaleku bila aritzeak estres handia sortzen du". Horrez gain, bost-zortzi kilometrotik beherako bidean autoz baino denbora gutxiago behar izaten dela azaldu dute. Eta, jakina, ekologikoa ere bada, baina hori ez da talde honen helburu nagusia. Dena den, kontzientzia europarra sustatu nahi dute: aire garbiagoa, petroliotik at eraikitako gizartea...

Enpresentzako ere, baditu abantailak

egitasmo horrek: "Izan ere, jende gehiago joango balitz bizikletan, aparkalekuak egiteko lursail gutxiago beharko lukete". Trafiko zama ere arindu egiten da: "Egunero hamar lagun joaten bagara bizikletan, hamar auto gutxiago daude errepidean". Gainera, autoa konpartitzeak dituen zenbait desabantailari egiten dio aurre bizikletak. "Bakarrik joateko aukera ematen du, eta ez daukazu besteen ordutegira moldatu beharrik".

Gaur egun dozena bat lagunek hartzen dute parte egitasmoan, baina antolatzaileen asmoa jende gehiago animatzea da. Adin, sexu eta mota guztietako jendea nahi dute egitasmoan: "Ez dezatela pentsatu zortzi zororen kontua dela!". Badakite hemen hainbat oztopo natural daudela, aldapak eta eguraldia esate baterako. Hala ere, "euria egiten duen egunak ez dira asko, eta aldapa batzuk oinez ere igo daitezke". Azkenik, behin hasiz gero, lagatzea zaila dela esan dute.

Aisialditik kanpo bizikletaz egiten dituzten kilometroak zenbatzen dituzte

EGITASMOA DATUTAN

Egitasmoa neurgarria da, eta, neurtze horrek taldekideak motibatzen du. “Hasten bazara, zaila da lagatzea. Gero eta kilometro gehiago egin nahi dituzu, eta autoa hartu behar duzun egunean umore txarrez jartzen zara”. Hala ere, argi laga nahi dute egitasmoa ez dela txapelketa bat. Bakoitzak ahal duen neurrian egin ditzake kilometroak; eguraldiaren, gogoaren eta agendaren arabera: neguan gutxiago erabiltzen dute bizikleta, eta Elgoibartik kanpora bidaiatu behar duten egunetan ere autoa erabiltzen dute. Ahal den neurrian, autoa ez erabiltzea da helburua.

2009KO DATUAK	2010EKO DATUAK (lehen hiruhilekoak)
BIZIKLETAN EGINDAKO KILOMETROAK: 3.777, 80	BIZIKLETAN EGINDAKO KILOMETROAK: 772,90
AUTOA HARTU GABEKO EGUNAK: 653	AUTOA HARTU GABEKO EGUNAK: 138
AURREZTUTAKO GASOLINA (LITROTAN): 302, 22 - Autoaren kontsumoa (l/100km): 8 -	AURREZTUTAKO GASOLINA (LITROTAN): 61,83 - Autoaren kontsumoa (l/100km): 8 -
AURREZTUTAKO DIRU KOPURUA: 272 euro - Gasolinaren prezioa (euro/litroko): 0,90 -	AURREZTUTAKO DIRU KOPURUA: 55,65 euro - Gasolinaren prezioa (euro/litroko): 0,90 -
ISURI GABEKO CO ₂ (KILOGRAMOTAN): 701,16 - Gasolina litro bat= 2,32 kg/CO ₂ -	Isuri gabeko CO ₂ (KILOGRAMOTAN): 143,45 - Gasolina litro bat= 2,32 kg/CO ₂ -

ESKAERAK

Egitasmoari jarraipena eman ahal izateko, eta gizarteari itxura europarragoa emateko, hainbat eskakizun egin dituzte:

Hasteko, norbanakoek egiteko asko daukatela uste dute, eta lehenengo eskaera eurentzako da. “Dozena bat lagun hasi gara autoa alde batera lagatzen, eta ez da herri guztia bide gorri bete arte zain egon behar”. Bakoitzak ahal duen neurrian, baina autoa ahalik eta gutxien erabiltzeko gomendioa egin diete herritarrei.

Udalari eta enpresei ere eskaera bat egin diete: “Herriko zenbait lekutan bizikletentzako aparkaleku estaliak egin behar dira”. Adibide moduan, industriguneak aipatu dituzte.

Errepideko zenbait gune arriskutsuak direla aipatu dute, Lerungo errotonda, adibidez. Beraiek bigarren mailako bideetatik ibiltzen dira ahal duten gehienetan, baina badakite bide horietan aldapak eta oztopoak daudela. “Edozein pertsona bizikletan ibiltzeko moduko azpiegiturak prestatzea eskatzen dugu”. Batez ere, zenbait lekutan trafikoa-ren norabidea berrantolatzea eskatzen dute.

Azkenik, bidegorriak egitea eskatzen dute. Santa Ana kaletik Maltzagaraino egin duten bidea “oso ondo” dagoela uste dute, baina “gehiago egin behar dira!”. Trenbide zaharraren bidea aprobetxatuz bidegorriak egitearen aldekoak dira, baina euren ustez, trenbiderik ez dagoen lekuetan ere egin behar dira bide gorriak: “Itxura europarra hartu behar dugu”. Harrigarria iruditzen zaie gaur egun oraindik Elgoibartik Debara joateko bidegorriak ez egotea: “Ezin da hain zaila izan”, adierazi dute, “Altzolaraino, gutxienez!”. Bidegorriak lanera joateko “bide seguru eta azkarra” izan behar direla diote, eta horretarako, ideia ona izan daitekeela uste dute Karkizanoko tunel zaharra zabaltzea.

Bestalde, inguruko herrietatik garraio publikoa erabiliz Elgoibarrera lanera etortzen direnentzako ere pare bat eskaera egin dituzte. Hasteko, tren geltokian bizikletak gordetzeko gune bat jarri beharko litzatekeela uste dute. “Beste herri batzuetan egin dute. Modu horretan, bizikleta bertan gorde, eta trenetik jaistean hartu daiteke, egunero trenean bizikleta aurrera eta atzera ibili beharrean”. Azkenik, gordailu horietan bizikletak alokatzeko aukera eskaintzea ere ondo egongo litzatekeela adierazi dute.

ANDONI ETXEBERRIA:

“Bizikletan ibiltzea eroso da, eta, gainera, denbora aurrezten da”



Dagoeneko ezaguna da Elgoibarren Andoni Etxeberriaren bizikleta bitxia. Orain dela berderatzi urte inguru erosi zuen, Bartzelonan. Bi ume eraman daitezke, euria egiten duenerako estalpe moduko bat dauka, eta, tolestuta oso erraz gorde daiteke.

Andoni Etxeberriak beti izan du gustuko bizikletan ibiltzea, eta ibilgailu berezi horri esker, umeekin ere ibili daiteke. Seme zaharrena jaio zenean erosi zuen, eta hasieran ez zuen uste hainbeste erabiliiko zuenik. Gaur egun, baina, primerako erosketa egin zuela uste du.

Umeak eskolara eramateko erabiltzen du askotan, eta umea poz-pozik joaten dela adierazi du. “Jendea ez dago ohituta, eta asko begira geratzen dira”. Gainera, erosoagoa dela aipatu du: “9:00etan auto pila bat egoten dira Ikastolako aldapan, eta denak presaka ibiltzen dira, lanera joateko”.

Horrez gain, erosketak egiteko ere oso eroso da dela aipatu du. “San Roken bizi gara, eta herrira autoan jaitea ez da batere eroso. Bizikletan jaisten naiz, karroa erosketekin bete, eta etxera itzultzen naiz”. Aldapa batzuk igotzea apur bat kosta egiten dela azaldu du, baina berarentzat erosoagoa da errobera gainean eramatea erosketak, bizkarrean baino.

Eguraldiak asko baldintzatzen du, eta batez ere, udaberrian erabiltzen du bizikleta: “Abiadura apur bat hartzen baduzu, umea estali egin behar duzu, eta apur bat arriskutsua izan daiteke”.

Herritarrei autoa alde batera laga, eta ahal dutenean bizikleta erabiltzeko gomendioa egiten die Andoni Etxeberriak: “Askoz erosoagoa da, eta zenbait gauzetarako, gainera, denbora aurrezten da”. Ohiturak aldatu behar direla dio. Elgoibar aldapatsua dela gaineratu du, baina oro har, bizikletan ibiltzeko herria ondo prestatuta dagoela iruditzen zaio.

OLGA GARCIA:

“Umeak eskolara eramateko, autoz baino askoz hobeto konpontzen naiz”



Ezaguna da Olga Garcia Elgoibarren. Bi semeak hartu, eta bizikletan eramaten ditu egunero Ikastolara. Orain dela bi edo hiru urte hasi zen, eta berarentzako askoz erosoagoa dela aitortu du: “Autoan baino askoz hobeto konpontzen naiz”. Kontu handiz ibili behar izaten du, batez ere, autoen artean, baina, gero eta hobeto moldatzen dela adierazi du. Santa Ana kalean bizi da, eta berehala egiten du Ikastolalarainoko bidea. Udaltzainei, baina, ez zaie gustatzen Olga bi umeak hartuta bizikletan ibiltzea: “Ikusten nautenean kontuz ibiltzeko esaten didate”.

Olgak uste du Elgoibar eta inguruak ez daudela bizikletan ibiltzeko prestatuta. Debara joatea gustuko du, eta bertan ibiltzen da bi umeak bizikletan hartuta: “Trenez joaten gara, baina batek baino gehiagok galdetu izan dit ia Elgoibartik joan naizen horrela!”. Olgari, dena den, Elgoibartik Debaraino bizikletan joatea gustatuko litzaioke, baina errepidean bi umeekin ibiltzea, arriskutsua iruditzen zaio. “Bide gorriak behar dira, umeak euren bizikletarekin ibiltzeko”.

Eguraldi txarra egin arren, ez du bere garraio mota aldatzen: “Momentu bat da, eta batzuetan busti egiten gara! Baina primeran dator kigu, esnatzeko!”. Elurte handiak egin izan dituen txan laga du bizikleta, baina bestela, hutsik egin gabe ibiltzen da urte osoan. “Ez dakit bizikleta gabe ibiltzen”, azaldu du. Umeak ere pozik joaten dira, eta oinez baino gusturago egiten dute etxetik eskolarako bidea.




Urasandi auzoan ez dute errespetatzen zamalanetarako aparkalekua: “Urasandi auzoan zamalanetarako aparkalekua dago, baina jendeak ez du gune hori ondo erabiltzen. Zamalanetarako ordutegi jakin batzuk daude, eta lan hori egin ondoren, aparkalekua libre laga behar da beste batzuentzako. Batzuek egun guztian zehar lagatzen dute autoa aparkaleku horretan, eta arazo handiak sortzen dira”.



Trenbide kaleko aparkalekuan zulo handia dago: “Trenbide kaleko aparkalekua oso egoera txarrean dago. Estua da, maniobrak egitea oso zaila da, eta, gainera, sarreran sekulako zuloa dago lurrian. Ezin daiteke nolabait aparkaleku hori konpondu? Apur bat zabalduz gero, askoz hobeto moldatuko ginateke. Autoa noiz markatuko diguten beldurrez egoten gara askotan, eta, baita, guk besteen autoa joko ote dugun beldurrez. Lan handiegirik egin gabe, aparkaleku horrek asko irabaziko lukeela iruditzen zait”.



San Frantzisko kaleko lurra lakarrago jarri dute, ez labaintzeko: “Txalo bero bat eman nahi diogu Udalari, San Frantzisko kaleko lurra lakarragoa egiteagatik. Oso labainkorra zen kale horretako lurra, eta jende asko erori izan da. Aurrerantzean herriko beste zenbait gunetan ere gauza berdina egiteko eskatu nahiko nuke. Orain askoz lasaiago ibiltzen gara euria egiten duen egunetan ere”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

- *Golian bego* -



Asun Ortuoste Elordieta

2010eko martxoaren 15ean hil zen, 94 urte zituela

*Benetako euskaldun
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea*



EAKO ALDERDIKIDEAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Kuxkuxero asko

Domeka beltza izan dugu astean. San Frantzisko kaleko etxe batek sua hartu zuen eguerdi aldean, eta bistan denez, suak sekulako kalteak eragin zituen. Su garrak belhurtzekoak ziren, eta halakoetan ohi denez, ikusmin handia sortu zen herrian. Inguru ia-ten ikusi genituen ertzainak eta udaltzainak, eta han bildu ziren kuxkuxeroei mesedez atzera egiteko eskatzen behin eta berriz. Jende askok, baina, jaramonik ez. Ez dut ulertzen. Etxea sutan, aldameneko etxea su hartzeko arriskuan, eta jende bat hantxe, traban. Sutan jartzen nau jende baten arduragabekeriak. Lanean dabilenari errespetua zor zaio, eta are gehiago halako egoera larri baten aurrean.

J. I. I. ©

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhar hitaeta:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin

batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.

4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

I. URTEURRENA

MIREN IZAR ERKIAGA GOITIANDIA



*Izan zarenagatik
beti izango zaitugu
gure bihotzetan*



2009ko martxoaren 19an hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 20an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldezt aurretik.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 744 112
 Faxa: ☎ 943 743 704
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 743 704
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIARI Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZALEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZALEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Justo Arriola, Arkaitz Inureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Unai
Arrieta



Zuhaitz
Gurrutxaga

Inpresioa daukat, Zuhaitz, kirolari edota kirolari ohi batek kirolaz baizik ezin duela hitz egin. Agian topiko bat besterik ez da, askotan errepikatzen den iritzi edo adierazpen horietako bat, inpresioa da. Egia esan, ez gara sarri kirolariok go-goetara emandakoak. Irrati edo telebistetan milaka ordu eskaintzen dizkigute, egunkari espezializatuak ere badauzkagu, baina gure jardunari buruz aritzen gara soilik, elkarrizketa antzuetan. Ez dugu normalean ekimen sozialetan parte hartzen, sari bat jasotzeko ez bada.



Kaixo, Unai! Zuk esan bezala, kirolariok ez daukagu ekimen sozialetan parte hartzaile aktibok izatearen famarik. Ongi irabazitako fama izango da ziurrenik. Baina aipatzekoa da, bai, azken hilabeteotan Euskal Herriko kirolari talde handi batek emandako pausoa. Hiruzpalau hilabetez, astero elkartu dira hainbat kiroletan aritzen diren pertsonak, goi mailan aritzen direnetatik hasi eta afizionatu soiletaraino. Bilkura horietan ez zaio inori bere ideologia politikoa zein den galdetu. Kolore anitzeko elkarrizketak izan dira. Kirolariok, eta soilik kirolariok, emandako pausoa izatea nahi da. Euskal herritar sentimendua daukan edozein kirolariri egjin zaio elkarlanerako deia.

“Errealitateak erakutsi dit kirolarien artean badagoela jende kezkatua eta jantzia”

Hala eta guztiz, errealitateak erakutsi dit kirolarien artean badela jende kezkatua eta jantzia. Nola ulertu, bestela, joan den urtearen azkenetan Euskal Herriko kirolariek Kirolhaerriaren baitan egindako urratsa? Gogoeta mamitsu bat egin eta konpromiso sakon bat hartzeko gai den jendea agertu da hor, kirol munduaz gozatu eta Euskal Herria aintzat hartu nahi duena. Ziurrenik elkartzeko beharrak eraginda, elkarren berri izan eta norabide berean antolatuz, Euskal Herriko kirolariok barne-bilduko gaituen etxea erakitzeko. Oker ez banago, Zuhaitz, prozesu parte-hartzaile hori gertutik jarraitu duzu. Kontatu iezaguzu pixka bat zertan datzan lehen mugarría Donostiako belodromoan izan zuen ekimen hau.

“Aipatzekoa da, bai, Euskal Herriko kirolari talde handi batek emandako pausoa”

Berandu baino lehenago, Euskal Herriko zazpi lurraldeak aintzat hartuta, lurraldeotako edozein kirolariri lekua egingo dion federazio, erakunde edo etxe bat sortzea da helburua. Inoren aurka joan gabe, eta orain arte gure inguruan dauden federazio ezberdinak errespetatuz, euskal kirolari guztion onurarako litzatekeen erreminta berri bat kalean izatea da asmoa. Nahi hau bete ahal izan dadin, abenduan, belodromoan ekitaldi handi eta polit bat egin zen. Euskal Herriko kirolari mordo baten diru-laguntzarekin bideratu zen jai dotorea. Egun hartan plazaratu ziren kirolarion elkar lanerako konpromiso sendoak. Orain lanean jarraitu beharra dago. Bidea ez da motza izango, ezta xamurra ere.



Elgoibarko Udala



Gazteen lokalen inguruan sortzen diren gatazkak konpontzeko protokoloa prestatu du Udalak

Herritarren arteko elkarbizitza hobetzea da helburua

Gazteek aisialdirako erabiltzen dituzten lokalen inguruan sortzen diren arazoak eta gatazkak konpontzeko protokoloa prestatu du Udalak. Elgoibarren 30 lokal inguru erabiltzen dituzte gazteek.

Lokalak erabiltzen dituzten gazteen eta eta lokal horien inguruko bizilagunen harremana hobetzeko proiektua jarri zuen martxan Udalak orain dela hiruzpalau hilabete. Ordutik hona, hiru bilera egin dituzte gazteek, gurasoek eta lokalen inguruetan bizi diren bizilagunek. 15 eta 60 urte bitarteko 7.000 lagun gonbidatu zituen Udalak, bilera horietan parte hartzeko. Lehenengoan, 80 lagun elkartu ziren; bigarrean, 70; eta hirugarrengoan, 96. Guztien artean idatzi bat adostu dute, eta egunerokoan erabiliko dute, batez ere, gatazka edo desadostasunak sortzen direnean.

Gazteek erakutsi duten "interesa eta inplikazioa" eskertu ditu Alfredo Etxeberria alkateak, baina gurasoen partetik "inplikazio handiagoa" espero zutela adierazi du.

Bigarren fasea

Gazteek erabiltzen dituzten lokalak direla-eta sor litezkeen arazoak konpontzeko protokoloa egin ondoren, Elgoibarko Uda-



lak hitz eman du akordiorako proposamen bat aurkeztuko duela "bi hilabeteko epean". Bestalde, lokal bakoitzari buruzko azterketa egingo du Udalak, sei hilabeteko epean.

Gazte bat larri zauritu zen domekan, gaztetxe parean izan zen istripuan



Astlehenean oraindik istripuaren arrastoak ikus zitezkeen errepidean.

Bi autok elkar jo zuten domeka goizaldean Deba kalean, eta gidarietako bat larri zaurituta dago. 4:30ak aldera izan zen istripua. Seat Ibiza auto batek eta Ford Fiesta batek elkar jo zuten, N-634 errepidean, gaztetxetik gertu. Lekuko baten arabera, aparkatuta zegoen autoetako bat errepidera ateratzeko maniobra egiten ari zenean jo zuen Eibarrentz zihuan beste auto batek. Kolpe bortitzaren ondorioz, autoetako batean harrapatuta geratu zen lagunak zauri larriak dauzka. Suhiltzaileek atera behar izan zuten burdin nahas-masatik, eta ambulanzian eraman zuten Mendaroko Ospitalera. Beste gidaria ere eraman zuten ospitalera, baina zauri arinak besterik ez ditu.

Izena **Amagoia Basurto**



Hiru lagun aurkeztu ziren Mendaroko bake epaile posturako, eta Udalak Amagoia Basurto aukeratu du hautagaitzat. Azken erabakia, baina, Euskal Herriko Auzitegi Gorenak hartuko du, bi edo hiru asteko epean. Ezustekorik ezean, Amagoiak beteko du, Juan Mari Uranga elgoibartarrak otsailean laga zuen postua. Beste zenbait lanen artean, bikoteak ezkontzea, eta jaiotakoen eta hildakoen zerrenda eguneratzea izango dira bere zereginak.

Berbia **Lapurreta**

Bost urteko kartzela zigorra eskatu du Gipuzkoako Fiskaltzak Elgoibarko etxean zenbait lapurreta egin zituen pertsona batentzat. Bizilagunak etxean zeudela egiten zituen lapurretak. Ustezko lapurrak 3.000 euro ostu zituen guztira, dirutan eta baliozko objektutan. Fiskaltzak emandako datuen arabera, 2007ko apirilaren 9an egin zuen estreinako lapurreta, San Bartolome kaleko etxe batean. Bizilagunak lo zeudela sartu zen leihotik, eta argazki kamera, erloju bat eta ehun euro ostu zituen. Bigarren lapurreta apirilaren 21ean egin zuen, Pedro Muguruza kalean. 2.000 euro dirutan eta mila euroko balioa zuten bitxiak ostu zituen. Etxearen jabeek ikusi egin zuten, baina ezin izan zuten ezer egin.

Irudia **Helmuga, Santa Klaran**

Santa Klara auzoa asfaltatzerakoan, ez zaie ahaztu helmugako marra ere marraztea. Azken urteotan Santa Klaran amaitu izan da San Bartolome bezpera eguneko Etxaniz Memoriala, eta azken metroetan irabazlea nor den argi eta garbi jakiteko, bi marra zuri margotu dituzte lurrean. Aurrerantzean, beraz, lasterketako epaileek errazago eta hobeto egingo dute lan.



Gazte bat atxilotu dute, ustez gasolina osteagatik

Elgoibarko industriagune batean, ustez bi kamioitako gasolioa osten ari zela atxilotu zuen Ertzaintzak gizon bat, zapatu gauean. 25 litroko hamabi gasolina ontzi aurkitu zituzten ertzainek susmagarriaren furgonetan. Erregai guzti horren jatorriaz galdetu zioten gidariari, eta honek industriagune hartan aparkatuta zeuden bi kamioitatik ostu berri zituela aitortu zuen. Erregai gordailuak indarrez irekita zituzten kamioi bi topatu zituzten ertzainek, eta zoruan gasolio arrastoak. 33 urteko gaztea ertzain-etxera eraman zuten. Azkenean, aske utzi zuten, baina epailearen aurrean aurkeztu beharko du, hala eskatzen dioten bakoitzean.

1937an jaiotakoen kinto bazkaria

1937an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute martxoaren 27an, Ibai Ondo jatetxean. Interesatuak jatetxean bertan eman behar dute izena.

Udalak Euskara sustatzeko diru laguntzak emango ditu

Elgoibarren euskara sustatzeko diru laguntzak emango ditu Udalak. Besteak beste, Udal Euskaltegitik kanpo edo barnetegietan euskara ikasteko, Udako Euskal Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Hik Hasik antolatzen dituzten ikastaroetan parte hartzeko, establezimenduetako publizitate errotuluak euskara hutsean jartzeko, edota enpresetan euskararen erabilera indartzeko diru laguntzak emango ditu. Laguntzak eskatzeko epea urriaren 31n amaituko da, enpresetan euskara bultzatzeko diru laguntzen kasuan izan ezik. Horretarako azken eguna irailaren 15a izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 744 366 telefonora deitu daiteke.


Etxe batek sua hartu zuen domekan, San Frantzisko kalean.

Zure etxea suak hartuko balu, zer aterako zenuke lehenengo?



Josean Lopez
44 urte, naturopata

Ni neu, eta etxeko bizilagunak salbatuko nituzke lehenik, dudarik gabe. Bizitza da garrantzitsuena, eta gauza materialak bigarren mailakoak dira. Gero, denbora izango banu, dirua hartuko nuke, baina nire bizitza arriskuan jarri gabe. Horrelakoetan norbera irten behar da onik.




Mari Carmen Peñalba
84 urte, etxekoandrea

Pertsonak. Beste guztia ez da garrantzitsua. Gure aldameneko etxea erre zen, domekan! A zelako sustoa! Suhiltzaileek atera gintuzten etxetik, eta nire semearen lagun batzuen etxean egon ginen atsaldara arte. Oso ondo portatu ziren gurekin.



Alfonso Basalo
76 urte, jubilatua

Ni neu, eta nire familia. Ondoren, banketxeko libretak eta txartelak hartzen ere saiaturik nintzateke. Jantziak eta gainerakoa ez nuke hartuko. Nire emazteak, akaso, balio handiko bitxiren bat hartuko luke, baina horrelakoetan korrika irtetea izango litzateke onena.



Abi Ruiz
42 urte, langabetua

Etxean bizi garenak onik irtetea izango litzateke, nire ustez, garrantzitsuena. Ni neu, eta nire senideak toki seguruan jartzen ahaleginduko nintzakete lehenik. Ondoren, arrisku handirik ez dagoela ikusiko banu, etxean ditudan dokumentu garrantzitsuenak hartuko nituzke.

III. URTEURRENA

JOSE MARI LIZUNDIA GARATE

"Maite izan zaitugunok ez zaitugu ahaztuko"

2007ko martxoaren 20an hil zen, 81 urte zituela. Haren oroimenez III. urteurrenoko meza izango da, zapatuan, martxoak 20, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

TXEMI ECHEVERRIA ARRILLAGA

2010eko martxoaren 15ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratu zaharra Amaia Mendikutek ekarri du BARREnera. 1969ko Gabonen bueltan ateratako erretratu da. Zabaleta baserri inguruan ibiltzen ziren sari. Egun horretan elurretan jolasean jardun zuten. **Ezkerretik eskumara:** Jose Mendikute, Juanita Azkue, Antonio Mendikute (†), Maribi Oñederra, Arantza Urain eta Ines Mendikute. **Hiru mutiko gazteak, ezkerretik eskumara:** Javier Artola, Pedro Urain (†) eta Imanol Urain.

Gure berbak Hiztegia: interjekzio batzuk

◆ **IGUALMENTE!**: Berdin! **On egin!** edo horrelako esaldi bati erantzuteko erabili ohi da. *–On egin! –Igualmente!* Gehiago erabiltzen dira, erabilera horretarako, **Berdin!** eta **Bai(tta) zuri ere!**

◆ **IKUSTEKUA IZAN:** Nabarmena, ikusgarria izan. *Da han topau genduan munduan danik zentralik haundixena, elektrikua. Ikustekua zan, ikustekua!*

◆ **INDIA!**: Zenbait adinekok erabiltzen duten biraoa. **La India!**, **Mekauen La India!**

◆ **JAKIÑA!**: *–Zu San Bartolomietan kalia bai, ezta? –Bai, jakiña! Ferixara ta. Jakifekua!* Ere erabiltzen da.

◆ **JANGOIKUAI!**: Harridura adierazten duen interjekzioa. Baita **Jangoikuari eskerrak** ere. Ba, *Jangoikuari eskerrak, daukauden edadietara alleau gara, eta oindiokan hamentxe nahi bizi.* Bai eta **Jangoiko maittia** ere.

◆ **JESUS!**: Harridurazko interjekzioa. **Josus** eta **Jaseus!** aldaerak ere bai. Baita **Jesus, Maria ta Jose!** ere. *Istorixak*

asko jaukadaz nik, Jesus, Maria ta Jose! / “Ezaizu hainbeste ipini”. *Norberak esan bihar askotan, mutill. Bestela... Jesus, Maria ta Jose, ze jateko!* / *Gora allegau be, eta hóntan, kañonazo bat kamiño erdixan sartu zan. Josus!*

◆ **JOÑO!**: Harridura adierazten duen interjekzio eufemistikoa. **Ño** ere bai. *Joño! Martiñen semia. Haura laguna daukagu. / Brometan moduan esan nion: “Ño, ezta merkia”.*

◆ **JOTAI!**: Kontakizunak egitean, esaldi adierazgarrietan erabiltzen den makulu-hitza. *Kanpaiak haste zianian, jota danak refujixora. / Jun da haura depositxuakin, da hasi dok soldiatzen, da jota esplotau. / Illia zeruan moztia. Jota, geatze zan, hau papelau baiño zurixao geatuko zan. Jata* aldaera ere bai.

◆ **JUARI...!**: Joan hadi...!

Jesus Mari Makazaga

HAMAIKA = BAT



Lehen lerroan, ezkerretik eskumara: Jose Luis, Julio, Esther Elozegi izeba, Camino, eta Maria Angeles. Atzean, ezkerretik eskumara: Jose Mari, Maria Puy, Antonio, Ana Mari, Maria Luisa, Jesus eta Marcos.

Hamaika neba-arreba dira Urbiola-Elosegitarrek: sei gizon eta bost andre. Nafarrak dira sortzez, baina gaur egun, lau ez beste guztiak hemen inguruan bizi dira, haietako bi Elgoibarren. Hala ere, lotura berezia dute guztiak gure herriarekin. Familia batuta mantentzeko, urtean behin hemen batzen hasi ziren orain hogeita hamar urte. San Jose egunaren bueltan elkartzen dira, Josefina Elozegi, ama, egun horretakoa zelako. 102 urterekin hil zitzaien ama, 2002an, eta 70 urtetik gora dituzte bihar elkartuko diren neba-arrebek. Familia handia, batua eta sasoi onekoa da.

Ainara Argoitia

Oteitzakoak (Nafarroa) dira jaiotzez Urbiola-Elosegitarrek, Lizarratik hamar bat kilometrora dagoen herri txiki batekoak. Umetan, denek ezagutzen zuten elkar herrian, eta etxean jasotakotik bizi ziren. Denbora joan da ordutik, baina Oteitzan bizimodua ez da lar aldatu. Mila lagunuen bueltan bizi dira, eta denek ezagutzen dute elkar. “Bizimodu gogorra zen, eta are gehiago gurea moduko etxe batean. Hamaika neba-arreba, gurasoak eta amama bat –aitaren aldekoa– bizi ginen teilape berean, eta txikienetik zaharreneira arteko guztiok lan egin behar izaten genuen. Eguzkia irteten zenetik sartzen zen arte, lanean”, azaldu digu Jose Luis Urbiolak. Horrexegaitik, beharbada, familia batua da oso Urbiola-Elosegitarrena. Urtero, San Jose egunaren hurrengo zapatuan, Elgoibarren batzen dira, bazkaltzeko.

“Amak eskatuta hasi ginen batzen neba-arreba eta iloba guztiok. 1980an elkartu ginen lehenengoz, San Jose egunez, amaren urtebetetze egunean. Urte askoan ez zela biziko pentsatzen zuen gure

amak, baina zorionez oker zebilen, beste 22 urte hartu zituen-eta. Bazkaritara, amaren ahizpa bat ere etortzen zen gonbidatu, baina orain hilabete eskas hil zen, Donostian, 96 urterekin”, dio Jose Luisek. Josefina Elozegi (Oteitza, 1900) orain zortzi urte hil zen, abuztuaren 2an, baina haren seme-alabek gogoz eusten diote amaren ilusioari. La Union gastronomia elkartearen batu izan dira urte askoan, baina azkeneko urteotan Zubi Ondo elkartearen batzen dira, hango bazkidea delako Jose Luis, Elgoibarren bizi den neba-arrebetako bat. Zapatuan elkartuko dira, 30. urtez jarraian.

Lucio Urbiola (1900-1950) eta Josefina Elosegiren seme-alaba guztiak bizi dira, hamaika neba-arrebak, eta batez beste 76 urte dituzte. Zaharrena, Madrilen bizi da Maria Luisa Diego elgoibartarrarekin ezkondu, eta Elgoibarren bertan bizi dira beste bi anaia. Iruñean bizi dira beste bi anaia, eta, gainerakoak, Basauri eta Zaldibar artean. Batak bestea ekarri zuen hona, lan eskua behar zelako orduan, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaian. Jose Luisek berak Agirre y Aranzabalen lan egi-

ten zuen Eibarren, eta Elorriora bidali zutenean, bi anaia ekarri zituen. Bera ere beste anaia batek esanda etorri zen lanera, baserriko bizimodu "oso gogorra" zelako eta etorkizunik ez zuelako ikusten. 19 bat urte zituen.

Familia handia bezain "berezia"

Familia "bitxia" osatzen dutela dio Jose Luisek. Jakin badaki Euskal Herrian familia handiagoak ere badirela, baina gurasoak ez beste guztiak bizi dira eurenean, eta horrek "berezi" egiten dituela dio. "Bila eta bila ari naiz, eta ez dakit zuen irakurleek gurearen antzeko beste kasurik ezagutzen duten, baina jakin nahi nuke. Ezagutzen gaituzten guztiak harritu egiten dira: 70 urtetik gorako hamaika neba-arreba gara, eta denok bizi gara. Ez dakit gure antzeko beste familiarik dagoen, eta hori jakin nahi nuke", nabarmendu du. Horren sasoi onean egoteko arrazoiak galdetu diogunean, zalantzarik gabe erantzun du: "Parranda gutxi, eta lan asko". Jatekoari ere gaur egun baino jaramon gutxiago egiten ziotela azaldu du, besteak beste, gaur beste aukerarik ez zutelako orduan. "Txerriak txarra dela esaten dute orain. Txerria txarra balitz, gu denok hilda egongo ginatke honezkero", esan du.

Familia handia izateak alde onak eta txarrak dituela dio Jose Luisek, baina umetako oroitzapen onak gordetzen ditu. "Iskanbila handia izaten zen gurean. Horrenbeste ume izanda, zer nahi duzu ba? Zaharrenak zaintzen gintuen askotan, eta norberari agindutako lanak txikiagoari agintzen genizkion guk. Bizkorra izan beharra zegoen, baina malezia berez hartzen da halakoetan", dio, barrez. Jose Luisen ama jostuna zen, eta denak "berdin" jantzita ibiltzen zirela oroitu du. "Oihal za-

ti handi bat erosten zuen, eta haretzekin janzen ginen gu, bikien moduan. Amamak egiten zizkigun lanazko jertseak-eta. Ez zen gaur beste erropa izaten, baina. Pilotan aritzen ginen mutilok herriko plazan, baina oinutsik, oinetakorik ez hondatzeko. Udan, baba itzelak irten zitzaizkigun oinetan".

Gaur egun horrenbeste seme-alaba izatea pentsaezina dela dio: "Elizak indarra galdu du, zorionez, eta gaur egungo gazteak argiagoak dira. Hazi umeak zerurako. Horixe zen orduko leloa. Ume bat jaiotzen zenean, besapean ogia hartuta zetorrela esaten zen. Txakurraren putza! Horrezaz gain, etxeek balio dutenarekin, gaur egun "ezinezkoa" dela dio. "Lehen ere ez zen erraza, hala ere". Urbiola-Elosegitarren familia oso eliztarra zen. Osaba bat abadea zuten, eta "aginte handia" zuen hark etxean. Jose Luisek aitortu du Elizaren beldurrez bizi zirela asko eta asko orduan. Elizara joaten ez zirenei "gorria" esaten zioten. Hala ere, Urbiolatarrenean ere izan ziren Elizarako bidea hartu zutenak. Fraide eta moja sartu ziren Jose Luisen anai-arreba batzuk, baina denak irten ziren gero. Azkena, 62 bat urterekin.

"Nik uste aukeratu egiten zituztela. Etxeko argien bila etortzen ziren abadeak, eta haiek eramaten zituzten", azaldu du Jose Luisek. Guraso askok, gainera, begi onez ikusten zuten seme-alabak fraide edo moja joatea, etxeok mantentzeko bide bat zen neurrian. "Gerra ostea ere bazen, eta zailtasun handiak izaten ziren". Jose Luisek, baina, ondo gogoan dauka ezkondu zenean amak eman zion aholkua: "Seme, ez ezazu seme-alaba asko izan".

Bihar, Zubi Ondo elkartearen batuko dira, eta ziur garai hartako makina bat kontu irtengo direla. Ez dira denak egongo, baina denak baileude moduan ospatuko dute.

"70 urtetik gorako 11 neba-arreba gara, eta denok bizi gara. Ez dakit halako kasu gehiago dauden"



Urbiola-Elosegitarren sendia. Josefina Elosegi eta Lucio Urbiola gurasoak, eta haien 11 seme-alabak.

Zer izan nahiko zenuke nagusitan?

Txtar biltzaileen nagusia, diru asko irabazten dutelako.

Mendaroko alkate bazina zer egingo zenuke?

Futbol zelaia konponduko nuke, eta futbol talde berria sortu.

Nora joango zinake oporretan?

Kanarietara, hondartza handiak eta politak daudela entzuna daukat-eta.

Miresten duzu inor?

Mirestu ez, beharbada, baina Llorente eta Messi oso gustuko ditut.

Zerk ematen dizu lotsa?

Barregarri gelditzeak.

Nola adieraziko zenioke maite duzula gustuko duzun pertsonari?

Ez daukat gusturik eta ez dut sekula izan. Gustukoren bat banu, Messenger edo Tuenti bidez esango nioke. Zuzenean "Maite zaitut" jarriko nioke, eta kitto.

Zer eramango zenuke uharte bakarti batera?

Janaria, ura eta arropa.

Zertaz zaude harro?

Ondo marrazteaz. Ikastolan Txokoloren egutegia egiten dugu, eta ikasle bakoitzak marrazki bat egiten du. Aurten, nire marrazkia aukeratu dute egutegirako.

Jo dezagun ikastolako zuzendari aukeratzeko zaituztela egun baterako.

Zer egingo zenuke?

Jai emango nieke ikastolako guztiei.

Zer dauka Mendarok beste herriek ez dutenik?

Ospitala.



t

x

i

k

i

b

a

r

r

e

n

Antzerkia



'Inalanbrikak' antzezlan izango da domekan, Elgoibarren

Vaiven antzerki taldeak *Inalanbrikak* antzezlan eskainiko du domekan, Elgoibarko Herriko Antzokian. Komedia musikala da, 5 urtez gorako umeentzat egokia. Adiskidetasunari esker, beldur eta zalantza guztiak garaitu daitezkeela erakusten dute obran. Antzezlanaren noizbait beldurra sentitu duten haurrei eskaini diete antolatzailaiek. Sarrerak egunean bertan erosi behar dira, han bertan. 16:30ean hasiko da.



Beñat Fernandez

7 urte

Piszina handi bat egingo nuke, baina Mintxetakoa baino handiagoa, Mendaro Elgoibar baino politagoa delako. Futbol zelai handi bat eta eskultura erraldoi bat egingo nituzke, eta ikastola itxi egingo nuke, denok oportetan joan ahal izateko.



Unai Agirre

6 urte

Alkate izanda diru asko izango nuke, eta oportetan joango nintzateke, urrutira. PSP bat ere erosiko nuke, eta skate pista bat eta Anoeta bezalako futbol zelai bat egingo nituzke Mendaron, baina ez dakit non, ez dago leku askorik eta.



Goiatz Andonegi,

7 urte

Parke berriak eraikiko nituzke Mendaron, eta txirristak ere jarriko nituzke. Piszina handi bat ere egingo nuke, Elgoibarren dutena bezalakoa-edo, eta txirristak jarriko nituzke uretan. Ikastola apainduko nuke, eta festa gehiago ere egingo nituzke



Amets Fernandez

7 urte

Lanik gabe daudenei dirua emango nieke, taillerak sortzeko, eta futbol zelai bat egingo nuke, Garagartzan. Errotodan lorak jarriko nituzke, oxigeno gehiago izateko, jai gehiago egingo nituzke, eta kanpaiak jotzeko aukera emango nieke herri-tarrei, Don Anjel nire laguna delako.



Alain Rodriguez

7 urte

Txinara-edo joango nintzateke oportetan, baina aurretik zer egin behar duten esango nieke laguntzaileei, eta herri osoa garbitzeko aginduko nieke kale garbitzaileei. Ikastola apainduko nuke, eta kolore urdinez margotuko nuke barrutik.



Maitte Zubiate

6 urte

Ikastola berria egingo nuke, handiagoa. Jolasteko leku gehiago ere egingo nituzke Mendaron, eta txirrista eta ziburu gehiago jarriko nituzke parke-etan. Piszina bat ere eraikiko nuke. Bestalde, Mendaron hondartza bat egingo nuke, Debakoa kenduta.



San Frantzisko kaleko etxe batek sua hartu zuen domekan, eta kalte material handiak izan ziren

Elgoibarko Udalak aldarmio bat jarri du San Frantzisko kalean, arriskuak saihesteko

San Frantzisko kaleko bi etxebizitzak erabat kiskali ziren domekan. 14:30ak aldera piztu zen sua, 32. zenbakiko hirugarren solairuan, eta behala zabaldu zen alboko etxebizitzara. Bi etxe horiez gain, ganbara eta teilatua ere harrapatu zituen suak, eta kalte material handiak eragin zituen. Arratsalde osoa eman zuten suhiltzaileek sua amaitzen, baina astelehen goizean kea irtezen zen oraindik erretako etxetik. www.ElgoiBAREN.net atarian dituzue argazkiak eta bideoak ikusgai.

Lau lagun bizi ziren sua piztu zen etxean, baina ezbeharrak gertatu zen unean inor ez zegoen bertan. Bizilagunek berehala eman zuten abisua, eta 15:30erako kontrolpean zuten sua suhiltzaileek. Aurrez, baina, eraikin horretako bizilagun guztiak aterarazi zituzten suhiltzaileek etxetik, eta baita aldameneko portaleko beste zenbait bizilagun ere. Izan ere, ondoko eraikina egurrezkoa da oso-osotan, eta su hartzeko arrisku handia zuen. Sutearen ondorioz, bizilagunetako batzuek senitartekoen etxeetan igaro zuten gaua, eta beste zenbaitek, Txarriduna hotelean.



San Frantzisko kaleko etxea sutan, Urasanditik ateratako argazkian.



Eibarko suhiltzaileak domeka arratsalde osoan ibili ziren lanean.

Ertzainak eta udaltzainak egun osoan ibili ziren lanean, baina artean ez dakite sua zerk piztu zuen. Hori bai, kalteak handiak izan ziren. Astelehen goizean uste okerrenak baieztatu zituen Udala aparejadoreak, etxebizitza zein egoeratan zegoen ikustera sartu zirenean. Bizilagunek euren ere ikusi zuten. Baliozko gauzen bila sartu ziren, baina ez zuten gauza handirik ateratzerik izan. Era berean, etxebizitza azpiko lokalek ere kalte handiak izan zituzten, suhiltzaileek sua itzaltzeko bota zuten ura dela-eta. Urak hartu zituen tindategia eta estankoa, eta ondorioz, beste lokal batzuetara aldatu behar izan dira.

Eraikina bera eraitsi egin beharko dutela ere zabaldu da, baina hori etxe jabeek erabaki beharko dutela jakinarazi du Udalak. Bileretan hasita daude, baina bien bitartean, etxea zurkaizteko aholkatu die Udalak. Arriskuak saihestu aldera, Elgoibarko Udalak aldarmio bat jarri du, San Frantzisko kalera.

220.012 euroko diru laguntza emango dio Udalak aurten Elgoibarko Izarra kultur elkarteari

Krisi ekonomikoa dela-eta, iaz baino 24.447 euro gutxiago jasoko ditu aurten

Elgoibarko Udalak 220.012 euroko diru laguntza emango dio Elgoibarko Izarra kultur elkarteari aurten, elkarteak dauzkan proiektuak eta egitasmoak finantzatzeko. Krisi ekonomikoa dela-eta, iaz baino 24.447 euro gutxiago jasoko ditu aurten euskara elkarteak.

Aurten ere, bi udal sailetatik bideratuko da laguntza hori: Euskara Batzordetik (140.000 euro) eta Gazteria Batzordetik (80.012 euro). Gazteria Batzordeak Atxutxiamaika taldearen egitasmoak lagunduko ditu diruz, eta Euskara Batzordeak, berriz, gainerako proiektu eta egitasmoak: Gurean Bai-Merkataritza programa (apiriletik uztaile artekoa), Haurrak eta Gazteak Saila, kultur jarduerak eta unean-uneoko programak, eta BARREN astekaria eta elgoi-BARREN.net Interneteko ataria.

Udalari, esker onez

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak Elgoibarko Udalak emandako laguntza eskertu du. Iaz ere, Udalaren laguntza “ezinbestekoa” da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko. Hala, aurre-



rantzean ere, bide hori lantzeko asmoa agertu du. “Gure ustez, ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haur eta gaztetxoaren aisialdia indartu, eta gure herriaren euskara sustatu nahi badugu”, adierazi du Elgoibarko Izarrak.

Ane Espilla eta Aitor Asenjo garaile, 11 urtez gorakoan Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan



Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa jokatu zen asteburuan Elgoibarren, eta herriko neska-mutilek primerako emaitzak lortu zituzten. Hemeretzi elgoibartarrek parte hartu zuten txapelketan, bi mailatan bereiztuta: 7 eta 11 urte bitartekoak, eta 11 urtetik 15 urtera bitartekoak. Zapatuan, 11 urte bitartekoaren saioan, Leire Amiano lezoarrak irabazi zuen nesketan, eta Aitor Lasa donostiarrak, mutiletan. Nesketan honako elgoibartar hauek izan ziren onenak: Saioa Marcos, Maialen Loiola eta Leire Morales. Saioak, Maialenek eta Leirek laugarren, bederatzigarren eta hamargarren postuan amaitu zuten, hurrenez hurren. Domekan, nagusiak lehiatu ziren, eta elgoibartarrek sekulako erakustaldia eman zuten. Aitor Asenjok irabazi zuen mutiletan, eta Ane Espillak, nesketan. Era berean, Arantxa Ferreirok hirugarren egin zuen. 28 neska lehiatu ziren guztira, eta gainerako elgoibartarrek honako postu hauek eskuratu zituzten: Alaitz Egaña (4.), Itziar Aldalur (6.), Andrea Arregi eta Leire Melgosa (7.), Leire Urzainki (13.), Goizeder Etxeberria (14.), Nerea Badiola (15.), Iraitz Gonzalez (16.), Nahia Makazaga (18.), eta Nora Bastida (20.).

Danborradaren kartel lehiaketa martxan da

Trinitate jaietako nagusien danborrada iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta kartelean, ezinbestez azaldu beharko da ondorengo testua: “Elgoibarko danborrada 2010. Maiatzaren 29an, gaueko 12:00etan”. Kartelaren irabazleak 300 euroko saria jasoko du. Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 30a izango da. Informazio gehiagorako, 943 742 158 telefonoan.

Napoka Iriak Hondarribiko musika jaialdian joko du, bihar

Ander Mujika eta Miren Narbaiza bikoteak osatzen duten Napoka Iria taldeak Hondarribiko Bidasoa Burning Festival jaialdian hartuko du parte, bihar. Jaialdiaren laugarren edizioa da aurten goa, eta musika formatuari dagokiona izango da berrikuntza handiena. Iaz ere, kontzertu akustikoak izango dira. Napoka Iriarekin batera, Sorkun eta Joseba Irazoki arituko dira. Jaialdia 22:00etan hasiko da, eta sarrerak 5 euro balioko ditu.

Daniel Arenas kulturista elgoibartarra Nutrytec taldeak fitxatu du

Munduko txapeldunaren taldekide izango da

Pauso handia eman du Daniel Arenas kulturista elgoibartarrak. Izan ere, Pedro Fernandezek zuzendutako Nutrytec taldeak fitxatu du. Aurrerantzean, Nutrytec Sport eta Health enpresen irudia izango da, eta Iron Man Muscle Magazine, Nutrytec Sport Nutrition eta Musclegenix moduko enpresa izango da, besteak beste.

Bi urtean behin berritzeko kontratua izenpetu du Daniel Arenasek, eta "oso pozik" agertu da lortutakoarekin. Izan ere, Espainiako txapeldunak eta munduko txapelduna eta txapeldunordea ere talde horretakoak dira. "Fitness munduan talde horretan egotea, futboleko Bartzelonan jokatzeko modukoa da", adierazi du elgoibartarrak. Gaur egun, Zuzen Fitness enpresan entrenatzen du.



Mendi bizikletako irteera antolatu du Morkaikok

Morkaiko Mendizale Elkarteak mendi bizikletako irteera antolatu du estreinakoz. Apirilaren 24an izango da, eta Anbotori buelta emango diote. 42 kilometroko ibilbidea da eginbeharrekoa, eta 820 metroko desnibela du. Oraindik irteera ordua zehaztu ez badute ere, Elgoibarko tren geltokian batuko dira txirindulariak. Izan ere, trenez egingo dute Elgoibartik Abadiñora arteko bidea. Ondoren, Abadiñotik Urkiolara igoko dira bizikletaz, eta Zabalandi, Tellamendi eta Besaide zeharkatu ostean, Abadiñoko tren geltokian bukatuko dute itzulia. Irteera antolatzeko, Morkaikok ezinbestekoa du zenbat lagun joango diren jakitea, eta horretarako, lehenbailehen izena ematea eskatu die interesatuei. Informazio gehiago nahi izanez gero, honako webgune honetan daukazue: <http://www.lehenengobidaia.com/pagina2/Vuelta%20a%20Anboto.htm>.

Loiolako hegiak
Imanol Murua Uri
BERRIA

Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

2005 eta 2007 urte artean ETAren eta Espainiako Gobernuaire arteko solasaldiak izan ziren batak, eta PSE-EE, EAU eta Batzunairen artekoak, besterik.

Prozesuaren kronika zehatza egiten du Imanol Murua Uri kazetariak Loiolako hegiak liburuan. orain arte inor gutxi ezagutzen zituen datuak argituz.

Elgoibarko Teillano baseritik, Loiolako baseliroraino, Orio eta Gernikoko hoteletan barrena.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Migo Urkullu eta Amalio Otegiaren testigantza.

eskaintza berezia

BERRIAren eskutik **15 €**

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu

www.berria.info
harpidetza@berria.info
 943-30 43 45

AUKERA EZAZU,
BIZI EUSKARAZ
berria

Loiola
"Auzoaren Bok alderdiaren egunetan behin zuten. Jesusen Lagardiko antzinaratu gaiti batzuk ere bazekiten hoi, eta horregatik zegoen egun hartan Auzo Etxean gure boro jokalari gehiago: Jose Mari Elberberria Loiolako bura ez zola. Juan Migueltza Auzo jokalariaren pizkundea bura ere Loiolan zen, alderdi horietan zuten. Erromeko berruzagi nagusiek berrikusi zuten egiteko gaita. Kampain batzuk hasi ziren Auzo Etxeko kalerako kokalekuan. Boro boro oso boro izateko zuten zere-eta, negoziatze gaitik orain batzuk erromatzen hasi zirela, zerbait aldatzen hasi zela ulertu zuten".

Iker Leonardo eta Arkaitz Irureta pozik itzuli dira Pierra Menta jokatzetik

18 ordu behar izan dituzte eski proba amaitzeko

Arkaitz Irureta eta Iker Leonardo elgoibarrak Frantziako alpeetan ibili dira asteburuan, Albertville inguruan egiten den Pierra Menta mendi eski proban. Estreinakoz hartu dute parte eskiatzaile elgoibartarrek lau eguneko eski lasterketan. Proba ezagutzeko eta bukatzeko helburuarekin joan ziren, eta esperotakoa ondo beteta itzuli direla adierazi dute. 18 ordu behar izan zituzten proba amaitzeko, eta pozik etxeratu dira egindako lanarekin. Eguraldi ona, eta elur ezinhobia izan dituztela adierazi dute, eta, gainera, gustura agertu dira jasotako animoengatik. Zapatuko etapan 6.000 ikusle inguru izan ziren, eta tartean, Elgoibartik joandako jendea ere bazegoen.



Datorren asteburuan, Europako Mendietan Regilen omenez egiten den memorialean hartuko dute parte, beste lau elgoibartarrek batera. Erlojuaren kontrako saioa izango dute zapatuan, eta domekan, bikoteka arituko dira.

Mugertza krosetako antolakuntza saritu dute

Juan Mugertza Nazioarteko Krosaren antolakuntzak Berrikuntza Saria jaso du, urtero egiten duten lanagatik, eta bereziki, Mamo Wolde Trofeoa antolatzeagatik. Junior mailako korrikalarien lana saritzen du Mamo Wolde trofeoak. Orain dela zortzi urte hasi ziren Mamo Wolde saria antolatzen, eta Mintxetako esanetan, mundu osoan egin da ezagun. Jaso berri duten sari honi esker, Mamo Wolde trofeoak izen handia hartu duela adierazi dute antolatzaileek. Saria apirilaren 9an jasoko dute, Madrilan.

Giro bikaina eta parte-hartze handia izan zen Ikastolak antolatutako Pilota Egunean



64 gaztetxok hartu zuten parte joan zen zapatuan, Pilota Egunean. 1996-2003 urteen artean jaiotako neska-mutilak izan ziren protagonistak, eta nor baino nor, aritu ziren pilotan jokatzeko. 12 tantora jokatu zituzten partida guztiak, eta batzuetan markagailua oso berdinduta egon zen. Ikusleek pilotaz gozatzeko aukera izan zuten, eta giro bikaina izan zen Ikastolako frontoian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Zamudio 0 (3. maila)
Soraluze 2 – Elgoibar 3 (Erreg. pref.)
Ostadar 3 – Elgoibar 2 (Jub.)
Anaitasuna 4 – Elgoibar 0 (Kad. A)
Amaiak Bat 8 – Elgoibar 3 (Chorezko inf.)
Elgoibar 0 – Arrasate 6 (Txiki)
Elgoibar 6 – Bergara 1 (Aleb.)
Elgoibar 6 – Aloña Mendi 1 (Nesk.)

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa
Bergara 22 – Lagunak 13 (2. mailako nag.)
Eskolarteko finalaurrekoa
Elgoibar 16 – Ataun 5 (Inf.)
Debarroko txapelketa
Lagunak 8 – Eibar 22 (Nag.)
Arrasate 22 – Lagunak 20 (Nag.)
Eibar 14 – Lagunak 22 (Kad.)
Elgetako 4 1/2koa
Arribillaga 22 – Olaeta 6 (Nag.)

ARETO FUTBOLA

Concepto Createch 2 – Laskorain 1

ESKUBALOI

Ormaiztegi 27 – Alkorta Elg. 24 (Sen. mut.)
Beristain Elg. 35 – Urola 33 (Jub. mut.)
Pneumax Elg. 29 – Urrietako 29 (Kad. mut.)
Bergara 29 – Txarriduna Elg. 24 (Inf. mut.)
Arrate B 33 – Bankoa Elg. 20 (Inf. mut.)
Aterpe Elg. 16 – Udarregi 15 (Inf. nesk.)
Pulpo 20 – Ikus Elg. 20 (Inf. nesk.)
Astigarraga Elg. 9 – Pakita Altzariak 8 (Inf. nesk.)
IMH Elg. 21 – Aiala Zarautz 30 (Kad. nesk.)
Leitzaran 20 – Grupo Eibar Elg. 36 (Jub. nesk.)
Tecnifuelle Elg. 26 – Urdaibai 24 (Jub. nesk.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Baixakua, 19
11:00 Elgoibar – Ordizia (Aleb.)
Zapatua, 20
11:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Kad. A)
16:30 Elgoibar – Amaiak Bat (Erreg. Pref.)
Domeka, 21
12:30 Elgoibar – Bergara (Nesk.)
16:30 Elgoibar – Aurrera Ondarroa (Chorezko jub.)

ESKUBALOI (Kiroldagian)

Baixakua, 19
10:00 IMH Elg. – Gasteiz (Kad. nesk.)
11:30 Beristain Elg. – Katiliu (Kad. mut.)
13:00 Alkorta Elg. – Hegialde (Sen. mut.)
Zapatua, 20
11:00 Tecnifuelle Elg. – Zarautz (Sen. nesk.)
16:00 Pneumax Elg. – Hondarribi (Kad. mut.)
17:30 Grupo Eibar Elg. – Kukullaga (Jub. nesk.)
19:00 Lauko Elg. – Ereintza (Kad. nesk.)
Domeka, 21
11:00 Pneumax Elg. – Pulpo (Kad. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest haurrak eta nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz edo interna. ☎ **618 052 967**
- Mutil gaztea lanerako prest. Sukaldeko laguntzaile izateko, garbiketa lanak egiteko, igeltsero laguntzaile aritzeko edota supermerkatuko kutxan lan egiteko. ☎ **638 465 098**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Ordu-tegi mal-guarekin. ☎ **626 914 904**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest, as-teburu eta jai egunetan, edo interna moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎ **943 748 209**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintze-ko, edo garbiketa lanetarako prest. Orduka, egun erdiz edo egun osoz, astelehenetik barixakura. ☎ **680 753 166**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintze-ko, garbiketa lanetarako edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **652 147 019 / 687 371 060**
- Emakume euskalduna pertsona nagusiak edo hau-rrak zaintzeko prest. ☎ **680 511 781**
- Mutila kamarero lanetarako prest. Esperientziaduna. Papelak ditut. ☎ **671 405 061**
- Neska euskalduna umeak zaintzeko edo beste edo-zein lanetarako prest. ☎ **676 482 121**
- Ordukako lanen baten bila nabil: portalak garbitzen, nagusiak zaintzen edo tabernak eta elkarteak garbitzen aritzeko prest. ☎ **699 609 190**

- Interna lan egingo nuke. Presazkoa. ☎ **660 651 569**
- Bertako gizona (42 urte) edozein lan egiteko prest (gurpil aulkia duen gizonak zaintzen). ☎ **661 225 149**
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **676 482 121**
- Mutil gaztea edozein lanetarako prest. ☎ **681 228 427**
- Neska gaztea umeak zaintzeko, garbiketa lanak egi-teko edo dendari izateko prest. ☎ **699 477 611**
- Neska gaztea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Erreferen-tziakin. ☎ **686 420 642**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo haurrak eta na-gusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **686 234 612**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo haurrak eta na-gusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **638 344 377**
- Emakumea edozein lanetarako prest. Goizeko 10:00etatik aurrera, gauetz ere bai. ☎ **618 052 967**
- Edozein lan egiteko prest. ☎ **638 520 765**

ESKAINNTZA

- Jatetxe batek sukaldari laguntzailea behar du. ☎ **943 743 196**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Lokal txikia alokairuan, San Roken. ☎ **667 838 858**

- Etxea salgai Pedro Muguruzan. Hiru logela, egonge-la, sukaldea (altzariekin), 70 metro koadroko terraza eta garajea. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **685 724 553**
- Conilen (Cadiz) apartamentu zoragarriak alokatzen dira. Garajeekin. ☎ **653 733 457**
- Etxea salgai Santa Klara kalean. Sukaldea, egonge-la, hiru logela eta komuna. Igogailua eta ganbara dauzka. Dena kanpora begira. ☎ **664 585 369**

GARAJEAK ETA MOTORRA

- Kotxe bikiarentzat garajea salgai edo alokatzeko Bernardo Ezenarro kalean. Eroski azpian. ☎ **665 720 977**
- Preparatutako BMW autoa salgai. M3 E36. 99koa, urdina 18 pulgadataro llantak, Galper frenoak, ITVA oraintze pasata. 85.000 kilometro. ☎ **616 266 212**
- Citroen C5 HDI 110CV Premier salgai. 2004 urte-koa, 75.000 km. 8.000 euro. ☎ **635 208 887**
- Santa Ana kalean, Ametsa parean, garajea alokagai. ☎ **615 787 857**

BESTELAKOAK

- Otsailaren 26an urrezko pultsera galdu nuen Er-muaranbide kaletik Toletxegaineko tren geltokira bitar-tean. Balore handikoa da. Saritu egingo da. ☎ **943 743 578 (Juli)**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro


Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro

Iriondo tabernaren ondoan dagoen nagusientzako parkean poltsatxo gris bat galdu da, barruan haurren hortzetako aparatuarekin.

Eskertuko genuke aurkituz gero deitzea.

Tel.: 637 249 967



MEKANOSA

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



• Zorionak, **Julen**, domekan urte bat egin zenuelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Iria**, urtebete egingo duzulako zapatuan. Aitaxo, amatxo eta Nagoreren partez.



• Zorionak, **printzesa**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Maia**, domekan 4 urte egingo dituzulako. Muxu pila bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Maddi**, hilaren 17an zure lehenengo urtebetetzea izan delako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Marina**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Paularen eta Juneren partez.



• Zorionak, **Mari**, bihar, martxoak 19, 88 urte egingo dituzulako. Lagunen partez, ondo pasa!



• Lur, luze adina labur; labur adina luze! Zorionak, **hankaluze!**

Erretratu bakarrek agurra: 2 euro.
Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

ECANIZADOS S. COOP BUKATU.
 OLASO Poligono Industrialak - Olosape kale, 6
 66 aldea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
 20870 ELGOIBAR
 E-posta: bukatu@bukatu.es - Htp: www.bukatu.es

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
 Kango eta barmeko arakidura
 Zolak ezartzea
 Lakadura egur, aluminio, PVC.
 Pintura orokorra

San Roke, 7 behean
 Pst. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 modulak
 Tel. 943 748 570

Jose Angel Zabala

MAHASTI

Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

INTURAK
 PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xestion, 2 - 3. soltoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

OKINDEGIA

19 barixakua **FOTERO**
21 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 19 Fernandez
- 20 Etxeberria (Santa Ana)
- 21 Etxeberria (Santa Ana)
- 22 Fernandez
- 23 Yudego
- 24 Fernandez
- 25 Etxeberria (Errosario)
- 26 Ibañez

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



18 eguena

Mobilizazioak

19:00 Jon Anzaren aldeko aldarrikapenak

Elgoibarko Amnistaren Aldeko Mugimenduak deituta, Jon Anzaren aldeko mobilizazioak egingo dituzte, Plaza Handian.

Musika

19:30 Kontzertua

Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalak kontzertua eskainiko du, musika eskolako auditorioan.

19 barixakua

Erakusketak

19:00 Josu Arrietaren margoak

Josu Arrietaren margo erakus-keta inauguratuko dute, eta Kultur Etxeko erakusketa gelan egongo da ikusgai apirilaren 4ra arte.

21 domeka

Antzerkia

16:30 'Inalambrikak'

Vaiven produkzioak haurrentzako antzezlanaren taularatuko du, Herriko Antzokian.

22 astelehena

Hitzaldia

17:30 Elikadura

Ana Elbusto mediku nutrizionistak "Zure elikadura zure bizitza da, zaindu ezazu" izenburuko hitzaldia emango du, Elgoibar Ikastolan.

GAZTELEKUKO EKINTZAK



BARIXAKUA 19

Ibñta

ZAPATUA 20

Wii 17:00

DOMEKA 21

Elgoibar Koloretan 17:00

MARTITZENA 23

Bitxigintza 17:00

EGUAZTENA 24

Txoko pribatua 17:00

EGUENA 25

Sukalde txokoa 17:00

LUDETEKAKO EKINTZAK



BARIXAKUA 19

Ibñta 17:00

ASTELEHENA 22

Wii "New Supermario" 17:30

MARTITZENA 23

Gorputz espresioa 16:30

EGUAZTENA 24

Non dago Ludo? 17:00

EGUENA 25

"Divermagic" 17:30

«Sherlock Holmes»

19, barixakua: 22:15
20, zapatua: 19:00/22:15
21, domeka: 19:00
22, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2010. Zuz.: Guy Ritchie. Akt.: Robert Downey Jr., Jude Law, Rachel McAdams, Mark Strong. 128 min. Sherlock Holmes eta Watson lagun leialak beste

desafio bati egin behar diote aurre. Beren herrialdea suntsi dezakeen trama arriskutsu baten aurka borrokatuko dira, eta beren dohain guztiak erabiliko dituzte.



25 egüena

Musika

22:00 Kontzertua

Larry Bird kantari irlandarrak kontzertua emango du, Iratxo tabernan. Folk estiloko musika saioa izango da.

26 barixakua

Jaialdia

19:00 Ikastolako jaialdia

Ikastolako LHko ikasleek jaialdia egingo dute, ikastolako frontoian.



Gure gomendioa

Musika eskolako talde instrumentalen kontzertua

Gaur, 19:30ean, musika eskolako auditorioan

Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute gaur arratsaldean. Pianoa, haize instrumentuak, soinua edota bibolina jotzen duten ikasleak, hari taldea eta talde instrumentala arituko dira, besteak beste. Kontzertua 19:30ean hasiko da, musika eskolako auditorioan.



Zerikasi

IKASTAROAK

Erretzeari uzteko ikastaroa

Norentzat: Erretzaileentzat

Hizkuntza: Gaztelania

Hasiera data: 2010-3-23

Non: Eibarren

Izena emateko: Kontsultatu

Pinacle bideoak editatzeko ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gaztelania

Hasiera data: 2010-3-23

Non: Eibarren

Izena emateko: 902 540 040

Ordenagailu bidezko diseinua

Norentzat: Delineatzaile ezagutzak dituztenentzat

Hizkuntza: Gaztelania

Hasiera data: 2010-04-12

Non: Elgoibarren

Izena emateko azken eguna: 2010-04-12

Photoshop, irudien edizioa

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Gaztelania

Hasiera data: 2010-04-12

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 208 444 (Santiago Iruetagoiena)

Etxeko erremedio naturalak

Norentzat: Interesatuentzat

Hizkuntza: Euskara

Hasiera data: 2010-04-24

Non: Eibarren

Izena emateko: 943 821 426

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

«Moon»
(Ongarri zinekluba)

18, egüena: 21:30

«Liverpool»
(Ongarri zinekluba)

25, egüena: 21:30

Espainia, 2008. Zuz.: Lisandro Alonso. Akt.: Juan Fernandez, Giselle Irazabal. 84 min.

Azken 20 urteak itsasontzie-

tan lanean igaro ondoren, jaio zen herrira itzultzeko baime-na eskatuko dio Farrelek kapitainari. Ama bizi den jakin nahi du.

herritik kanpo



mikel etxaniz

Gabonak amaitu ondoren joan zen Mikel Etxaniz Edinburgora. Hegaldi merke bat hartu, hiru egunerako ostatua erreserbatu, eta beste hainbat gazte bezala, ingelesa hobetzeko asmoz joan zen elgoibartarra Eskozia aldera. Gustura dago, baina lana bilatzeko zailtasunak ditu. Antza denez, Edinburgora ere iritsi da krisia.

“Lan eskaintza asko gutxitu da krisiaren eraginez”

Zergatik aukeratu zenuen Edinburgo?

Edinburgon bizi izandako jendearekin berba egin nuen, eta denek esan zidaten esperientzia oso ona izan zutela. Jendea oso jatorra zela, gazte giro paregabea zegoela eta Erresuma Batuko hiririk politena zela. Birritan pentsatu gabe hartu nuen erabakia.

Eta, hala da?

Hiria oso ederra da, baina aldi berean, iluna eta misteriotsua ere bai. Arkitektura aldetik, Erdi Aroko estiloko eraikin bitxi asko daude, eta orain dela 300 urteko herri batean zaudela dirudi. Momentuz Edinburgon bertan ibili naiz, batez ere, baina auto bat alokatu eta bost bat eguneko bidaia egiteko asmoa daukagu. Highlands, Lock Ness, Skye Island eta beste zenbait leku ikusiko ditugu. Merezi duela esan digute.

Nolakoak dira Edinburgoko bizilagunak?

Jendea oso jatorra da hemen. Irekiak dira, eta beti laguntzeko prest daude. Duela gutxi, supermerkatuan erosketak egin eta etxera bidean nindoala, poltsa bat apurtu eta dena lurrera erori zitzaidan. Segituan hiru emakume hurbildu zitzaizkidan laguntzera.

Zer moduz moldatzen zara ingelesarekin?

Ingelesa ikastera joaten naiz, egunean hiru orduz. Etorri nintzenetik hona, nire ingelesa hobetu da, baina oraindik hasiberria naiz. Egundik lanen bat aurkitu nahiko nuke, nire ingeles eskolekin uztar-

tzeko, baina krisiaren eraginez lan eskaintza gutxitu egin da, eta nire ingeles mailak lana bilatzea zailtzen du.

Lana bilatzeko zailtasunak dituzula diozu. Krisia Edinburgora ere iritsi da?

Bai, igartzen da. Hala ere, kanpotarrentzat alde positiboa ere badu krisiak: euroarekiko balio handia galdu du librak, eta hori guretzat abantaila da.

Tabernaren batean musikari lanetan aritu zarela esan digute. Kontatuko diguzu?

Perkusionista bat behar zuen gitara jolea ezagutu nuen, eta, hurrengo egunean kajoi flamenko bat erostera joan ginen. Astebetera kontzertua eman genuen taberna batean. Lagun asko etorri ziren, eta giro oso polita sortu zen. Hiriburuko kalerik garrantzitsuenetako batean ere jo izan dugu pare bat aldiz. Esperientzia oso polita izan da; etorkizunean nire bilobei kontatzeko modukoa.

Sentitu duzu zerbaiten falta?

Etxekoak, lagunak, neskalaguna... Eta, pare bat unetan herrimina ere sentitu izan dut: Elgoibarko inauterietan Mauxitza txarangakoekin egotearen falta sentitu nuen. Bestalde, txotx denboraldia hasi da, eta koadrilakoekin sagardotegira joan eta txuleta eder bat jatea ere gogoran daukat.

Noiz arte geratuko zara Edinburgon?

Uztailera arte geratuko naiz, baina ahal izanez gero, abuztuan berriz itzuliko naiz, hemen ospatzen den jaialdi kultural handia ikustera.



Edinburgoko gaztelua



grupo eibar
inmobiliario

San Frantzisko kalea, 44 behea
Tel.: 943 748 002 / 689 236 537

**AZKEN
ETXEBIZITZAK!!**

Garaiz zabilta oraindik luxuzko etxebizitza bat eskuratzeko, alde zaharretik oso gertu, eta zerbitzu guztiak esku-eskura dituen.

Etxebizitzak Santa Klaran



Informazio gehiagorako, bisitatu www.grupoeibar.com
edo deitu 943 316 611 // 689 236 537

DACC

- Arropak 46 tailatik aurrera
- Osagarriak: pultserak, belarritakoak...
- Merkatuko marka ezagunenekin egiten dugu lan (Lola Casademunt, Paca Garcia, Biluzik...)

Animatu eta zatoz gure denda berria ezagutzera!

